

## Turismoa Plazaola eta Mendialdean

### TURISMO EREDUA

Turismoa Plazaola eta Mendialdean garatzeko Plan hau, lurraldearen balio naturala eta identitarioa zaindu, garatu eta ezagutzera emateko tresna moduan ulertu behar da:

- Landa eremu honetako ekonomia garapenean eragin nahi duena eta Mendialdea zonaldearen kohesiorako bidea izan nahi duena.
- Mendialdea zonaldea bere osotasunean hartuko duen proiektua izango da, bertako herriak, herritarrak eta eragileak elkarlanean jarriko dituen.
- Lasaitasun handiko landa eremu honen identitatea osatzen duten bertako eta askotariko baliabideak balioan dituen: hala nola, bertako paisaia eta produktuak, bizimodua, ondarea, historia, kultura, klima, etab.

Plan honen helburua da Mendialdea zonaldeko turismo-kudeaketa lankidetzan garatea, proiektu honen inguruan dauden eragile guztiak bateratuz eta antolatuz. Hauek dira Planak jorratuko dituen ildo nagusiak: Mendialdea zonaldearen garapena; iraunkortasuna eta ingurumena zaintzea; bertako baliabideen garapena eta aprobetxamendu ekonomiko arduratsua; eta, elkarlana.

Lurraldeko eragile guztiak inplikatu dituen Plan hau, herritarrek beren lurraldea gehiago eta hobeto ezagutu eta zaintzeko lagungarria izatea nahi da.

### ILDO NAGUSIAK

1. **Eskualdea:** *Elkarren beharra dugulako, elkarrekin.*
2. **Iraunkortasuna:** *Garatu, garen hori zainduz.*
3. **Produktuak:** *Gureak ez du parekorik.*
4. **Komunikazioa:** *Garena erakutsi behar dugu, espazioak irabazi.*
5. **Elkarlana:** *Baditugu tresnak, erabil ditzagun.*

## ILDO NAGUSIAK

### **Eskualdea:** *Elkarren beharra dugulako, elkarrekin.*

- Mendialdea zonaldea bere osotasunean hartuko duen proiektua (bertako herriak, herritarrak eta eragileak elkarlanean jarriko dituen).
- Mendialdea zonaldearen garapen ekonomikoa xede izango duen proiektua.
- Ahalik eta udal eta enpresa pribatu gehienak Patzuergoan egotea.
- Diru-laguntzetan geroz eta gehiago baloratzen da zonaldeen arteko elkarlana.

### **Iraunkortasuna:** *Garatu, garen hori zainduz.*

- Proiektu iraunkorrez hitz egiterakoan, ingurumenaren zaintza datorkigu burura. Baina hori baino gehiago ere bada. Edozein erakunderen jarduerak, gutxienez, hiru dimentsio ditu: ekonomikoa, soziala eta ingurumenari dagokiona. Ondorioz, erakunde baten iraunkortasun estrategia zehazterakoan hiru dimentsio horiek kontuan hartu behar dira. Arlo ekonomikoa emaitzei erreparatzeaz gain, gobernantzari ere arreta jarriko diogu. Eta arlo sozialean, barne maian, pertsoneri eta lan baldintzei erreparatuko zaie eta, kanpoan, gizarteari egiten diogun ekarpena zainduko da.
- Iraunkortasuna denei eskatu behar zaie, bisitariei baina baita publiko, pribatu, herritarrei, etab. Etxetik hasi behar gara (herriak, kaleak, garraioa...).
- Turismoak sektore ekonomiko moduan duen eragina (lanpostuak sortzeko, zonaldeko herritarrak bertan geratzeko lanean...) ikusaraztea edo balioan jartzea.
  - Neurgailua: sistema bat lortu, diseinatu, adierazleen bidez, turismoaren eragina neurtzeko.
  - Neurketak egin erakusteko ez dela soilik bide berdea.

### **Produktuak:** *Gureak ez du parekorik.*

- Fokua jarri desberdintzen gaituen horretan, produktu desberdinetan.
- Publiko zehatzentzako produktu espezializatuak.

### **Komunikazioa:** *Garena erakutsi behar dugu, espazioak irabazi.*

- Komunikazioa, barne eta kanpo mailan. Publiko zehatzetara bideratua: Eskaintza interesgarria daukagu (zerbitzuak, agenda, errekurtsoak, ibilbideak, monumentuak...), orain komunikatzeko modua landu behar da (aplikazioak, errealitate birtuala, story telling edo audio bidezko bisita gidatuak...).
- Marketing kanpainak, sentsibilizazio kanpainak, diskurtsoak prestatu eta zabaltu
- Eskura ditugun baliabideak sendotu. Zonaldeko herritar eta eragileak informazio puntuak izateko prestatu, formatu. Tresnak egokitu (web gune konpetitiboak, erabiltzeko erraza, informazio guztia jasotzen duena).

### **Elkarlana:** *Baditugu tresnak, erabil ditzagun.*

- Elkarlana tresna bat da, lan egiteko modu bat. Maila desberdinetan egingo da: herri mailan, herrien artean, pribatu eta publikoen artean, pribatuen artekoak, publikoen artekoak, eskualdez kanpoko eragileen artekoa, ... Herritar, udal, enpresa pribatu, ekoizle, ... denak dira turismo eragile eta denen arteko elkarlana gakoa izango da eskualdea osatu, elkarrekin proiektuak garatu eta aurrera egiteko.
- Elkarlana bideratu eta koordinatzeko figura garrantzitsua da Plazaola Patzuergoa. Urteetako esperientzia du proiektu desberdinak elkarlanean bideratzen.
- Diru-laguntzetan geroz eta gehiago baloratzen da zonaldeen arteko elkarlana.